

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



“Bizitzako gauza gogorrenetakoa nahi duzuna egiteko aukerarik ez duzula onartzea da”

Jon Garmendia sukaldaritzan murgilduta bizi bada ere, ez dio kulturpile izateari utzi. 'Soinuen Begiradak' ikuskizunerako abesti bat idatzi du. 2/4

Kulturaz blai

Jarduera ugari burutzen ari dira Andoainen eta Urnietan, hilabete osoan zehar / 5-9

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako deialdietara dozenaka lagun hurbildu ziren / 10-11

"Eguberri gol" futbol kanpusa Ubitarten, Euskalduna klubaren eskutik / 13

Andoain BONOIA Ordaindu **40€** eta gastatu **50€**

SALKINeko dendetan gastatzeko



Abenduaren 2tik 10era, erosi bonoak Salkinen bulegoan, Ondarreta kalea, 6. 09:00-12:00 / 15:00-16:00
Erabilgarri urtarilaren 5era arte.

Nortasun agiria erakustea ezinbestekoa da eta 2 bono eskura ditzake bakoitzak, 18 urteik gorakoentzat.
*Bonoak erosteko, edozein banketxetako txartela erabili beharko da.

Andoain txartela erabiliz gero, %5eko deskontua

S2 SALKIN
bertatik bertara



ANDOAINGO UDALA

Andoni Urbistondo DONIBANE LOHIZUNE
Kaia jatetxeak ematen dizkio buruko minak egun. Baina baita Durangoko Azokarako prestatu beharreko abestiek ere. Urnietan larunbatean eskainiko duten antzerki emanaldian ere bere alea jarri du, gustura gainera, herritarrek berarekin oroitu direlako. Egoera politikoak baldintzatutako bizitza izan da berea, baina lagunak, etxeokak bisitan joaten zaizkionean, herria eta deserriaren arteko distantzia desagertu egiten da erabat.

Zer, zein da da Jon Garmendia?

47 urteko urnietarra naiz, izatez Izarre baserrikoa. Egape ikastolara oinez joaten gineneko garaia, trenbidea pasata gogoratzen ditut, askotan itzultzen baitzait gogo haurtzarora, babes bila banenbil nezala. Etiketarik jarri zaleak gara norbait nor den jakiteko eta normalean bere jatorria baliatzen dugu. Victor Hugo poeta, idazlea dut maite, Frantziak eman duen idazle onena niretzat. Haren esan hau gustukoa dut: alda itzazu iritziak, baina ez printzipioak, alda itzazu hostoak, baina inoiz ez sustriak. Hernanin ere urte mordo bat egin nuen gazte garaian, eta azken urtetan Donibane Lohizunen bizi naiz, Lapurdin, pixkanaka sortu den familiarekin.

Sortzailatzat jo duzu zure burua. Diziiplina ezberdinetan. 180 abestiren egile zara. Datu ikaragarria da.

180 abesti 25 urtetan, hainbeste ez dira, ezta? Ez naiz abestien kopuruarekin jabetzen, garrantzitsuena jendearengana iritsi ote naizen jakitea da. Etzakit taldearekin hasi nintzen Xabi Solanorekin lankidetzan eta gaur arte berarekin egin dut bidea. Euskaraz idatzi dut gehienbat, baina baita gaztelez edo frantsesez ere... Hasiera hartan bertsoetan-eta ibiltzen nintzen, baina azkar jabetu nintzen musikak arreta berezia sortzen zuela nigan. Ikastolan irakatsi zidaten musika maitatzen. Lourdes Iriondo ardatz bat izan zen, Antton Jauregi ere bai, eta Justo Egaña ere. Ikastolako oroitzapenetan murgildu naiz ez aspaldi, ikastolako Antton Jauregi irakasleak eta Koldo Tapiak abesti bateko hitzak egiteko eskatu baitzidaten, antzerki obra batentzat. Ilusioa egin zidan, hangoa nai-



Jon Garmendia "Txuria", Donibane Lohizuneko hondartzan. AIURRI

Jon Garmendia, deserrian baina etxean

JON GARMENDIA MARTINEZ SORTZAILEA

Etzakit eta Esne Beltza taldeetako kantuen idazle, poeta, kazetari, sukaldari... , sortzaile petoa da Donibane-Lohizunen bizi den urnietarra. Deserrian, baina etxean

zela oroitzen baitira zenbait herritar.

Nola hasten da pertsona bat abestietako letrak idazten?

Disko oso bateko abestiak idaztea obra bat sortzea da. Abestiak idaztea liburu bat idaztea bezala al da? Literatura al da? Nik argi dut baietz, komunikatzeko modu bat dela, zerbait sortzen da besteengan zerbait pizteko.

Uste dut abesti labur batzuk liburu batzuk baino eraginkorragoak izan direla bestalde, agian liburu horren esaldi bat gogorazteko eskatzen badiozu norbaiti igual ez du bat botako. Aldiz, abesti bateko esaldi bat berea balitz bezala kantatuko du emozio betean. Artista ezagun askok kantatu dituzte ene hitzak eta horrek poz eman dit. Xabier

Solanorentzat aritu izan naiz nagusiki, baina hor daude Fermín Muguruza, Berri Txarrak, Alaitz eta Maider, Iker Lauroba, Patxuko Nice, Sen... Non inspiratzen naizen? Eguneroko bizimoduan, noski. Bizipenen baitan hitz batzuk idazten hasten zara, inguruari begiratu eta gertatzen ari denari, eta horrela ohartzen

zara abestietako hitzak eraiki dituzula oharkabean.

Askatasuna izan duzu, hitzak osatzerakoan?

Bai, normalean bai. Nik niretzat idatzi dut, niri kezkatzen nauten gai sozialak erabiliz batez ere, gero ohartu naiz kantu asko bereak egin dituela jendeak. Hor jakin dut hitz horiek ez zirela gehiago nireak, baizik haienak. **Oraino liburu bat zergatik ez duzun idatzi ere galdetuko dizute...**

Bai. Erantzun sinplea du. Momentuz musikan bidea egitea lehenetsi dut. Etapa hori ixten bada, hasiko naiz agian. Eskatu dizkidate gauzak, eta nahi nuke, idatzi ditudan poema horiek argia ikustea noizbait. Lagun minek irakurri dituzte, errezi-taldiak ere egin ditut poema horiekin, ipuin kontaketak ere bai, baina esan dizudan bezala ikusiko da etorkizunean.

Kazetari ere bazara.

Bai, Ipar Euskal Herrian aste-kari bat gidatu nuen hiru urtez, kazetari gisa artikulua dezente argitaratu ditut, eta egun Gara egunkarian ere zutabe bat idazten dut astelehenero. Kazetari jardunean aritua naiz, baina literaturari buruz idazten dut batez ere. Egia esan nahiago dut kulturaren arloan libreki idazteko hautua, kazetari batek eguneroko egiten duen zehaztasun eta zorrotasun lan eskerga baino.

Sormenak, sortu beharrak nekaten du?

Nekatu baino gehiago hustu egiten zaitu, baina sortzea beharrezkoa da, gure sentimenduak azaltzeko. Ideien kontrabandista sentitzen naiz. Ez lapurtu, elkartrukatu baizik. Orduan eta gehiago irakurri, hobeto idazten dugula esango nuke, beraz aberastasuna dakar gauza bat baino gehiago egiteak. Bestalde, sortzea ez da karga bat, hostoak etengabe berritzeko modu gisa ulertzen dut nik, osatzeko modu bat bezala.

Bizitzak tratu handia emandakoa zara, izan istripuengatik, zure ideia politikoengatik. Deserriaz zer pentsatzen duzu?

Niri buruz galdetzen didazu, eta deserria ez naiz ni bakarrik. Jende asko dago, deserria jasan duena. Zer da nire deserria? Askok esaten didate, "behintzat etxetik gertu bizi zara", bai, baina ezin dut joan. Bizitzako gauza gogorrenetakoa da nahi duzuna egiteko aukerarik ez

izatea. Hori onartzea. Hor dago Urnieta, baina ezin dut joan. Distantzia ez da kilometroetan neurtzen niretzat, denboran baizik. Zenbat urte pasako ditudan nire baserrira bueltatzen, hori da distantzia. Auto istripuarena oso gogorra izan zen, zoritxarra onartzea, hari buelta ematea, ziklo ilun bat lehenik, eta argia gero. Bizitza arrosa kolorez imaginatzen dugu, eta beti ona nahi dugu, baina txarra ere badago, eta txar hori askori gertatzen zaie. Istripua eduki nuenetik adibidez, badakit ezinongo dudala berriro mendi batera igo, eta hori onartzeak lanak ematen ditu. Deserriarekin berdin. Ikasi egin behar da. Bizitza tximista da, etortzen gara, berehala joateko, eta zoriontsu egiten zaituzten gauzak bilatu behar dituzu. Donibanen xakean jokatzeko, erakutsi ere egiten diet haurrei, eta une horiek gozagarri zaizkit, bizitza hor dago. Urtetan sortu dudana familia eta lagunartean. Eta bide batez buruko mina ematen dizutenak ahaztu, edo bigarren maila batean utzi, motxila astuna beti gainean badaramagu ere. Bakarrik sentitzea deserria baino mingarriagoa dela esango nuke, eta hemen ez nago bakarrik. Nor ez zegoen ere erakutsi dit, bizitzak.

Deserria politikoki hautu bat egin zenuelako etorri da. Hautu hartaz hausnarketarik egiten duzu?

Galdera zaila egiten didazu. Izango naiz galdera horri erantzuteko gai, noizbait. Baina 2019an ez. Euskal Herriaren nortasuna maite dut, eta herri hori aske nahi dut, ez beste inoren esku. Eta antzera pentsatzen segitzen dut. Ez dut ezer txarrik egin, ez dut ene burua gaizkile gisa ikusten, eta hori garrantzitsua da bidea ibiltzeko. Konbikzio batzuk nituen, ideologikoak, eta aurrera eramanez ditut, argi dut horrek ekarri nauela hona. Zauriak sortu dira, bai, mina sortu da, bai, sortu egin dugu. Hori ez da inoiz ezkutatu eta aitortza ere egin da, "ni txintxo naiz eta nire kideak ez", hori ez dut esan ere, eta egindako kaltea onartu egin dugu ariketa kolektibo bat eginda. Baina guri egin digutena ez dut uste onartu dutenik, ez behintzat haren sortzaileek, ez eta isilik gelditu diren beste askok ere. Eta ez dut nire adibidea jarriko, Euken anaiarena



Michael Ramiréz eta Jon Garmendia Kaia taberna-jatetxeko sukaldetan. AIURRI

baizik. Tortura basatiak jasan zituen 1993an, beste urnietar askok bezala, Gurutze Iantzi hil egin zuten tratu txarrekin, eta Urnietan horri buruz sakontasunez hitz egin da? Zerbait serioa egin da? Egunero egiten dizkiot galderak ene buruari, eta erantzunaren bila saiatzen naiz ahalmen guztiz. Zerk ekarri nau deserriera? Zer egin dut ondo, zer gaizki? Merezki izan du?

Jendeak galdetzen du Urnietan. Frantzia libre bizi da, zergatik ez da hona etortzen?

Euskal iheslari politikoa naiz, kolektibitate baten parte. Ehunka, milaka euskaldunek ikusi dute euren etxetik martxa egiteko beharra, inork ez baitu bere desioz maite duen bizitokia uzten atzean, eta min hori ez da inoiz desagertzen. Deserrian bizitzea ez da samurra, bizi zaren administrazioaren baitan zaude, balioa duten agiri ofizialik gabe, edozein tramite txikiren aurrean zailtasunez beteta, lan bat lortzeko, medikuaren errezetak izateko, edo haurrei zure abizena emateko. Galdera ez da ni noiz itzuliko naizen, ezta nola nagoen ere, nire egoerak irtenbide kolektiboa behar du, ez nirea bakarrik. Atxilotu ninduten, estraditatu izan nin-

"SOINUEN BEGIRADA IKUSKIZUNEN ABESTI BATERAKO HITZAK ESKATU ZIZKIDATEN. ILUSIOA EGIN ZIDAN"

tzen, kartzelara eramana, erru gabetu ninduten Espainian bere garaian, baina ondoren beste atxiloketa mehatsua izan nuen. Askotan esan izan dut, Espainia bazka behar duen pizti bat da, ez du inoiz amore ematen. Nahi duena egiten du nahi duenaren kontra. Oso herri kolonialista da, zanpatu egin ditu herriak. Kolonia guztietatik bota egin zutelako joan zen, ez euren kabuz. Frantzia libre bizi naiz, kakotx artean, baina beste kide asko ez, atxiloketa, estradizio eta deportazioak erabili egin ditu bere interesen baitan. Euren eskuetan zauden abere bat zara, ez gizaki bat.

Izarre baserrira bueltatzeko esperantzarik baduzu?

(Segundo luze batzuetako isilunea). Izarre han dago, eta ni hemen. Nola esaten zaio ama bati bazoazela? Nire ama eta aita han daude, eta ni hemen. Esan bezala, distantzia ez da kilometroetan neurtzen. Maite dudana han dago, maite dudana ere badago hemen. Deserria nire etxekoentzat ere mingarria izan baita. Behin Euken anaiak esan zidan: "Bai, hi deserrian, eta gu zer?" Eta arrazoi du. Ama topoan etortzen da Hendaia-arraino, ia 80 urterekin, aita gero

"BAKARRIK SENTITZEA DESERRIA BAINO MINGARRIAGOA DELA ESANGO NUKE"

eta makalduago ikusten dut urruntasun honetan, anaiak beti izan ditut laguntzen, eta hori zorte handia da. Ikusten naiz bueltatzen, baina ez nau sobera ernegutzen. Dena ez da hara joatea. Ez darabilkit galdera hori etengabe nire buruan. Hara joaten banaiz igual hemengo ahaztu beharko nuke. Nahi dut hori? Ez. Hein batean beldurra sortzen dit hara bueltatzeko? hori ere bai, noski. Kontua da erabaki hori hartzeko libre izatea.

Egungo egituraketa politikoarekin zu eta zu bezalako deserriaratu buelta ezinezkoa dela ulertzen du.

Baina nora itzultzen da joan ez dena? Balio du ni itzultzeak eta ni bezala daudenak ez? Hor korapilo handi-handia dago, eta askatzen saiatu behar gara. Askotan pentsatzen dut berriro Urnietara bueltatzea berriro ihes egitea izango litzatekeela. **Azken aldian sukaldari lanetan murgilduta ikusi zaitugu. Nolatan?** Gustuko dut sukaldia. Baserrian bi anaia zaharrenak behiekin ibiltzen ziren, larrean, eta ni amarekin, amonarekin eta izeba-amonarekin, sukaldetan. Lau mutil ginen eta orduan lan batzuk neskek egin behar zituztela esaten zen baina... tira, lana

"EUSKAL HERRIKO PINTXO ONENEN ARTEAN DAGO GUREA, LIBURU BATEAN ATERAKO DA"

ez da generoaren arabera, beharra eta nahiarenera baizik, niri etxeko lanak egitea egokitu zitzaidan eta gustura. Sagardotegia izan zen Izarre, eta zapo-reak, usainak... asko ikasi nuen gaztetan etxeko sukaldetan. Uste dut nahiko trebea izan naizela betidanik, baina ez dut eskola egin, autodidakta izan naiz. Izan ditut sukaldari onak irakasle halere, Fronton tabernako Roberto Ruiz, Berasategiren laguntzaile izandakoa, adibidez. Marizuloko garaia ere ezin ahaztu. Musikarekin bezala, gustatzen zait jendeak nik sukaldetan egindako elikagaiekin gozatzea.

Bi urte dira, dagoeneko, Kaia jatetxean murgildu zizela, Donibane Lohizuneko Tourasse karrikan. Gustura?

Bai, oso. Errekonozimendu bat lortu dugu, eta gauero bete egiten dugu jatetxea. Herrian ez dagoen gauza eskaintzen dugu. Donibanen turismo udatiarrari begira bizi dira jatetxe gehienak, orduan jendea trumilka etortzen baita Lapurdiko kostaldera. Gu hemen bizi gara, eta urte osoan eskaintzen dugu janaria. Sasoaren arabera janari freskoa, bertakoa. Ez daukagu, ez izozkailurik, ezta mikrouhinik ere. Eta bertako elikagaiak erabiltzen dugu, Ipar edo Hego Euskal Herrikoak izan: laborariak, Donibaneko arrantzaleak... Ardo etxe txikiek hornitzen gaituzte, ogia Hernaniko Sulabe okindegikoa dugu anaia Mikel okina baita eta horrekin zorte handi izan dut.

Pintxo lehiaketetan parte hartzen ere hasi zara...

Bai, eta hasi naiz, eta tarteka non demontre sartu ote naizen galdetzen diot nire buruari. Ze lehiaketa horietan Michelin izarrak dituzten sukaldariak daude, eta ni haien artean, pentsa... Kontent geratu nintzen, laugarren postuan sailkatu ginelako, finalerako sailkatu ziren 14ren artean. Finaletik kanpo geratu zirenak ere gutxi ez. Pintxo bat sortu genuen, irin biologikoarekin egiten den ogia erabiliz, kraskaria, bakailaoa konfitatzen dugu denbora luzez, tenperatura baxuan, piperrak, olio eta baratxuriarekin nahasi, sagardotegietan egiten zen bezala. Bakailaoarekin jokatu nahi nuen, Euskal Herriko produktu klasikoa delako. Txipiroi tinta bat, Ezpeletako piperrare-

kin sare antzeko bat eginez, bueno, jateko goxoa den zerbait. Donibanen laugarren geratuta, Euskal Herriko Pintxo txapelketara aurkeztu ginen, eta han izan zen Kaian daukagun sukaldari panamarra, Michael Ramirez. Euskal sukaldaritza ikasi du, eta oso ona da. Finalerdietara sailkatu zen, eta Euskal Herriko 25 pintxo onenen artean sailkatu zen gurea. Liburu batean argitaratuko dute. **Zein izango litzateke zure ametsa sukaldari gisa?**

Luzera begira ez dut ikusten nire burua sukalde batean ordu asko ematen, egia esan. Behar bada baserrian egingo dut zerbait egun batean, nork daki? Halere, larre zabalekoa naiz, eta proiektuak sortzea dut gustuko. Kaian jabetxean baino



Jon Garmendia Martinez urrietarra. AIURRI

lehenago Ziburun Maitenia eta Atalaia ekimenak sortu genituen, euskara sustatzeko txoko moduan, eta lan talde baten barnean. Euskaraz, euskal sukaldaritza dastatu nahi zuenari aukera eman. Euskararen alde lan handia egiten duen jende asko dago hemen, Seaska, euskaltegiak, baina euskara gutxiengoa da, eta ez da hizkuntza ofizial bat. Lapurdiko kostan oso eskasa da erabilpena.

Azkena, nola ikusten duzu Euskal Herriaren etorkizun politikoa?

Gero edo jendarte indibidualistagoa garela sumatzen dut. Denok nahi dugu hobeto bizi, zertarako dauzkagun ere ez dakigun gauzak pilatuz bizi gara, oporrak nahi ditugu, autoak, ordenagailu eta telefonoak, kontsumoaren erdian bizi gara,

gure egoa elikatuz, gure zilborrari begira... Galdera kolektiboak ere berriro formulatu behar dira. Adibidez, Independentziaren beharra dugu jendarte gisa? Baiezkoa bada, joango gara bila. Gure jendarte oso burgesa da. Ezkerreko ideiak ditugu, baina egunerokoan oso kontserbadoreak gara... Merezi dugu independentzia? Behar dugu? Baina balore egokiekin, ezta? Nik partekatzen ez ditudan balore eskuindarretan oinarritutako nazio bat ez nuke nahi.

"EUSKARAREN ALDE LAN HANDIA EGITEN DUEN JENDE ASKO DAGO HEMEN"

Xabier Leteren gutuna

Xabier Leterekin asko akordatzan naiz, maitagarri izateaz gain enetzat poeta handienetako bat delako. Amak harreman estua zuen harekin eta Lourdesekin, eta nik harreman epistolarra izan nuen etxetik joan eta gero Leterekin. Toulouseko kartzelan nengoela idatzi zidan, baina gutuna berriz itzuli zioten etxera, helbidea ez zuela ongi jarri-eta.


Lourdes hil zenean animozko hitz labur batzuk igorri nizkion eta eskerrak emanaz erantzun zidan, ondo gordea dut gutun hori, bai apalategian liburu artean eta baita bihotzean ere, esaldi magikoak baitaude bertan, "Jarrerei eta ekimenei buruz gure iritzia eduki genezake, baina gero pertsona bakoitza dago, bakoitza bere gauean, eta horri uste dut errukiz eta gizatasunez begiratu behar zaiola", adibidez. Lourdesi buruz nola hitz egiten

zuen ere hunkigarri zait, bikotea, bitzita. Nire irakaslea izan zen hura, eta antzerkirako eta musikarentzako maitasuna piztu zidan berak.

Azkenik bada Xabierren esaldi bat oroitu aldiko hunkidura dakarkidana "Ez dakit espetxe batean gauza on askorik badagoen ala ez, baina nik zuri hoberena opa dizut".

LOURDES HIL ZENEAN ANIMOZKO HITZ LABUR BATZUK IGORRI NIZKION, ETA ESKERRAK EMANAZ ERANTZUN ZIDAN

ONDO GORDEA DUT LETEREN GUTUN HORI, BAI APALATEGIAN LIBURU ARTEAN ETA BAITA BIHOTZEAN ERE



'Arnasa gara' ekimena

Euskararen arnasmuneetara iristeko ekimen berria zabaltzen ari da. Joan zen asteburuan UEMAK eta beste erakunde batzuk sustatu duten ekimena Urrietako Xoxokara iritsi zen. Egitasmoaren aurkezpena bertan egin zuten, eta hitzordura auzotarrak eta Udal ordezkariak bat hurbildu ziren. Euskara arnasten eta bizirik dauden tokiei aitortza egin nahi diete.



ARNASA GARA

Zinegotzi aldaketa

Urrietako EH Bilduko Udal taldeak oharra helarazi dio Aiurri astekariari, zinegotzi taldean aldaketa iragartzeko: 'Mikel Legarretak bere aulkia Xabier Yurramendiri utziko dio. Legarretak taldea babesten jarraituko du baina udalaren erritmoa eta lana bateraezinak direnez, errelebo eskaera egin behar izan du'.



EHBILDU

'Soinuen Begiradak' ikuskizuna, hiru saio denera

Saroberen 25. urteurrenarekin bat eginez, ikuskizun berria taularatuko dute. Anabas, Txanbolin eta Egape kultur taldeen lankidetzari esker sortu da, eta ekimenera eragile gehiago batu dira. Denek ere dantza, musika eta irudiekin Urnieta herriko ondarea balioan jarri nahi izan dute. Hiru saio egingo dituzte, sortu duen ikusminari erantzun nahian. 16:00tan partaideen senideentzat. Eta 18:00tan eta 19:30ean bi saio gehiago, ikuslego zabalarentzat.



URNIETAKO UDALA

Erakusketa ederraz gozatzeko aukera, Sarobeko hainbat txokotan



Sarobeko urteurrenean ikusle ugari bertaratu da arte eszenikoen gunera. Bisitariak, urnietarra izan ala ez izan, ez luke erakusketa galdu behar. Mimo prestaturikoa, dantza eta antzerki estreinaldi ezberdinetan agertu diren jantziak eta atrezzo elementuak bertatik bertara

ikusteko aukera dago. Gazteago direnentzat ezezaguna bada ere, zinema eskola izan zen bertan. Tresneria zaharra eta bertan ekoiztutako ikus-entzunezkoak pantailan ikus daitezke. Historian barrena murgiltzeko aukera bikaina. Orduetgia: 09:00-13:00 / 16:30-21:30.

Cambridge ziurtagiria

London School of Languages zentroak Cambridge ziurtagiria lortu duten Urnieta ikasleen lana nabarmendu nahi izan zuen, Lekaion antolatutako zuten ekitaldian. Zentroak emandako datuen arabera, "ikasleen %95ak Cambridge azterketa gainditzen du. Horrexegatik, ikasleen ahalegina balioan jarri nahi dugu".



LONDON SCHOOL URNIETA



Gora Kaletxiki bandako kideak Trentxikitik barrena pieza jotzen ari ziren unean, joan zen larunbatean Santa Krutz elizan. AIURRI

Gora Kaletxiki Banda Santa Krutz elizan

Ozenki abesbatzaren eta Doinu Zale musika eskolako akordeoi orkestraren lankidetzarekin Santa Zeziliako kontzertua eskaini zuten, joan zen larunbatean. Andoingo musika ondarea aberastera datozen bi abesti estreinatu zituzte

Xabier Lasa ANDOAIN

Eñaut eta Ander Egaña anaiek agurraren dantzarekin ekin zioten emanaldiari. Ondoren, hiru atal ezberdin izan zituen emanaldia heldu zen. Lehenbizikoan, Imanol Kamiok zuzentzen duen Ozenki abesbatzak eta Doinu Zale akordeoi orkestrak *Liberozenki* (Astor Piazzolla) eta *El Mesias* (G.F. Haendel) piezak eskaini zituzten.

Gora Kale Txiki Bandaren txanda iritsi zen, jarraian. Joxe Mari Oiartzabal zuzendari zuela, bandak hiru abesti interpretatu zituen: *El pajarito salio de la jaula* (Pepe Andoain) eta *Leizaran euskal fantasia* eta *Trentxikitik barrena* (J.M. Oiartzabal). Xabier Ucin klarinete jolea bakarlari gisa jardun zuen lehenengoan; Joxe Ramon Berrodo Eizagirre tronpeteta jolea bigarrenengoan.

Elizara hurbildutako musikari guztiakin osatu zuten kontzertuaren hirugarren zatia.

Ordurako gorde zituzten, gainera, ilunabarreko une hunkigarrienak.

Bi abesti berri

Bi abesti estreinatu zituzten: *Baltzuketa* eta *Bonbardino hotsak*, biak ere Joxe Mari Oiartzabalen doinuekin eta Joxeramon Berrodoen hitzekin osaturikoak. Lehena Leizotz auzoko Baltzuketa baserrian bizi den familiari eskainitakoa da, eta bere kide den Xabier Jauregi txistularia egileei eskerrak emateko jendaurrean agertu zen.

Bigarren abesti berriak Gora Kaletxiki Bandako hirukote beteranoa du gogoan: Jose Luis Fernandez, Paco Perez eta Paco Bidasoro. 17 urte dauzkan Gora Kaletxiki Bandarekin hasieratik aritu dira hirurak, Andoingo eta beste hainbat herrietako kale eta plazak alaitzen. Omenduak emozioz gainezka agertu ziren jendaurrean, eta oroigarri bana jaso zuten Luciano Uribe-

salgo Banda kidearen eskutik. Musikari batentzat musikarien aitormena jasotzea baino gauza ederragorik ez dago, are gehiago abesti berri batekin datorrenean.

Hona abestiak zer dioen: *Musikariek alaitzen dute sarritan gure bizia / bonbardinoen hotsekin sortuz bizipozaren irria / hiru lagunek urte askotan berpiztu dute herria / gure txarangan aurkitu dute maitasunezko kabia / Kale ilunak piztutuz dira noten hotsekin jolas-tuz / tristura guztiz uxatzen dira txarangarekin arituz / aportazio handiarekin gure herria maitatuz / bertso xume hau egina dago emandakoa eskertuz.*

Xalbadorren heriotzean abestiak eman behar zion amaiera emanaldiari. Azkenerako, denen artean *Lau teilatu* abesti ospetsuaren bertsioa egitera animatu ziren, grabazioa EITB Maratoiak abian jarri duen kanpainara bidaltzeko asmoz.

Bandako hirukoteari omenaldia



Jose Luis Fernandez, Paco Perez eta Paco Bidasoro. AIURRI

Omenaldi hunkigarria Bandaren sorreratik bonbardinoa jotzen aritu den hirukoteak taldekideen eta ikusleen omenaldia jaso zuen. Oroigarria eta kantua hunkituta jaso zuten.



Joxe Mari Oiartzabal eta Imanol Kamio zuzendariak. AIURRI

Lagunez inguratuta Bandako kideak ez ziren bakarrik izan. Haiekin batera zuzenean aritu ziren Ozenki abesbatza eta Doinu Zale musika eskolako akordeoi orkestra.



Mikel Emezabal zuzendariak Bandako kide guztien lana azpimarratu zuen, eta txaloa eskatu zuen haientzat. AIURRI

Udal musika eskolako bandaren kontzertua

Geroz eta pieza konplexuagoak eskaintzeko joera hartzen ari dira. Eta aurtengoan, gainera, musika eta antzezpena uztartzen dituen 'La Greve des Musiciens' abestia oso modu informal eta umoretsuan eskaini zuten

Xabier Lasa ANDOAIN

Santa Zezilia musikarien egunarekin batera, Udal Musika Eskolako Bandak kontzertua eskaintzen du urtero. Aurtengoan ere ez dute hutsik egin. Emanaldian zehar Mikel Emezabal zuzendariak hitza hartu zuen kide dituen musikariei esker ona adierazteko: “Astero-astero

diziplina zorrotzera zintzo makurtzen baitira, zuzendariaren esanetara”.

Errepertorioan hainbat pieza eskaini zituzten: *Strathcarron* (Philip Sparke), *Gladiator* (Frank Bernaerts), *Ammerland* (Jacob de Haan), *1492 Conquest of paradise* (Vangelis)..., Geroz eta pieza konplexuagoak eskaintze-

ko joera hartzen ari dira. Horren erakusgarri izan zen *El camino real* (Alfred Reed) pieza.

Azkenerako antzezpena eta musika uztartzen dituen *La Greve des Musiciens* (L. Daunot) pieza utzi zuten. Musikari onak izateaz gain, batek baino gehiagok antzetzpenerako dohainak erakutsi zituen ere.

Antzezpena eta omenaldia



Greba irudikatu zuten musikariek. AIURRI

'La Greve des Musiciens' Musikariak zuzendariaren aurka nola matxinatzen diren azaltzen da musika pieza horretan. Eta Basteroko emanaldian halaxe egin zuten. Pankarta ezberdinak eskuetan, zuzendariari desadostasuna agertu zioten. Esperimentuak ikuslegoaren oniritzia jaso zuen, antzezpena algarartearen jarraitu zutelako. Bukaeran, txalo zaparrada jaso zuten.



Bandako saxo joleak. Erdian, omenaldia jaso zuen Jorge Garcia. AIURRI

Agurra eta eskertza Emezabalek denen izenean eskertza adierazi zion: “Asturiasetik heldu zen hona, eta berehala, Andoainen erabat integratu egin zen, euskara eta guzti ikasiz. Orain, berriro, jaioterrira itzultzeko ordua iritsi zaio. Jakin beza Banda osatzen dugun musikari guztiok bihotzean edukiko dugula beti”.

Ekonomia Ituna
zerikuzi handia... nirekin!

Eta euskal herritar guztiekin; isan ere, haren bidez, erantzukizunez, zorrotasunez eta sentsibiltater kudea ditzakegu eta euskal balabide eta zerbitzu publikoak.

Euskadi, auzolana, bion comin.

ELUSKO JAURRIARITZA | GOBIERNO VASCO
ORDAIN ETXERAKO SAILA | DEPARTAMENTUEN TITULAREN BARRIAN

Urteurreneko emanaldi berezia, igande honetan

Olagain Udal txistulari elkarteak bere sorreraren 40. urteurrena ospatuko du. Gonbidatu ugariaren parte hartzearekin osatuko du kontzertua, entzuleen oroimenean geratzen diren kultur ikuskizun horietakoa antolatuz



Kontzertuan parte hartuko duten musikari guztiak entseguetan murgilduta dabilta egun hauetan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Olagain Udal txistulari elkarteak bere sorreraren 40. urteurrena ospatuko du. Gonbidatu ugariaren parte hartzearekin osatuko du kontzertua, entzuleen oroimenean geratzen diren kultur ikuskizun horietakoa antolatuz.

Entzuleentzat gozagarria eta gogoangarria izango den kontzertua eskaintzeko ahalegina egin dute Elkarteko kideek. Eta kontzertuaz baliatuko dira bigarren helburu bat betetzeko: esker oneko azaldu. Eskerrak eman nahi dizkiete elkarte 1979an sortu eta ondorena eman dioten pertsoneri, eta aldi berean, eskerrak urte guzti horietan bidelagun izan dituzten kultur taldeei.

Joxema Setien Elkarteko zuzendariak adierazi duenez, “duela 40 urte elkarte sortuz Andoainen txistuaren hotsa biziberritzea nahi izan zuten pertsonak oroitu nahi ditugu, eta baita ere urte guzti hauetan elkarte jarraitu dutenak. Modu berean, lau hamarkadetakoa ibil-

bidean gertu izan ditugun kultur elkarteei gure miresmena agertu nahi genieke. Izan ere, ohorea izan da guretzat guzti horiekin bizipenak eta jendaurreko emanaldiak partekatzea, eta ohorea izango da horietako askorekin kontzertua eskaintzea igandean. Adiskideen zerrenda luzea osatu dugu bidean, eta nahi bai, baina ezinezkoa egin zaigu denendak kontzertuko formatura biltzea; esan dezakegu guztien ordezkari dela Basteroko agertokian elkartuko dena”.

Parte hartze anitza

Txistuaren hotsa izango du ardatz kontzertuak. Nolanahi ere, Setienek zehaztu duenez, “txistua, silbotea eta atabala entzun-go dira denbora guztian, baina

**EHUN ETA HOGETA
HAMAR LAGUN IGOKO
DIRA IGANDEAN
BASTEROKO
OHOLTZARA**


abesti bat kenduta, gainerakoe-tan eszenategia partekatu egingo dugu: abesbatzekin, ahots bakarlariekin, teklatuerekin, gitarra jolearekin, bateriarekin, metal boskotearekin dantzari-ekin, bertsolariekin, ...

Hauxe da parte hartzaileen zerrenda luzea: Alberto Agirre eta Astigarragako Aiztondo Abesbatzak, Soñuak musika eskola, Urki dantza taldea, Klaap dantza eskola, Andoaingo erraldoi eta buruhandien konpartsa, Loatzo musika eskola, Txanbolin txistu elkarte, metal boskotea, Javier Gestoso (gitarra), Joxean Pascual, Igor Arroyo eta Garazi Jauregi (abeslariak), eta Ion Beloki eta Unai Ormaetxea (bertsolariak). Guztiak, Ainhoa Aiertzak aurkeztuko ditu.

**ANTOLATZAILEEK
URTEURRENA OSPATU
ETA BIDELAGUN IZAN
DIRENEI ESKERRONA
ADIERAZI NAHI DIETE**

Garazi Jauregi kantaria

“Bi abestietan parte hartuko dut, Alberto Agirre eta Aiztondo abesbatzekin batera. Leonard Cohenen *Halleluyah* da bata, eta *Kontrapas* da bestea, Xabier Leterena. Ilusio handia egin zidan kontzertuan kantatzeko gonbidapenak. Aita txistularien taldeko kide izan da beti, eta igual horrexegatik, iraganean, proposatu zidaten behin edo behin, abeslaria behar zutenean. Ezetz erantzun izan nien beti, baina bazen garaia baiezkoa emateko! Olagaineke egoitzara entseiatzera etorri naizen alditan herriko kultur elkarte askorekin egin dut topo, eta ez daukat zalantzarik kontzertua oso polita eta parte hartzailea izango dela.



Garazi Jauregi. AIURRI

Bestalde, emozio eta urduritasun pixka bat eragiten dit Basteron abesteak, izan ere, jendaurrekoa utzita daukat Lorratzak taldea desegin zenetik”.

Errepertorioa

Olagain Txistularien Elkartek aparteko ahalegina egin du doinu tradizionalak eta modernoak uztartzeko. Horixe islatuko da emanaldian ere:

- Erreberentzia (Mold: Luis Urteaga; Egokitzailea: J.I. Ansorena).
- Ezpata Dantza (Mold: J. I. Ansorena).
- Brakaman Munieta (Raimundo Sarriegi; Mold: J.I. Ansorena).
- Sugo (Juan Carlos Irizar).
- Halleluyah (Leonard Cohen; Mold: Xanet Arozena)
- Ohorezko kontrapasa (R. Sarriegi; Mold: J.I. Ansorena).
- Galo (fandangoa) Amaio (arin-arina) (Mold: J. I. Ansorena)

- Ama begira zazu (Victor de Zubizarreta; Mold: Txomin Aguirregomezkorta)
- Unai Ormaetxea Ion Beloki bertsolarien parte hartzearekin.
- Kontrapas (Hitzak: Bernat Etxepare; Musika: Xabier Letera; Mold: Jagoba Astiazaran).
- In Dulce Jubilo (Bach/Mike Oldfield).
- Guantanamo (Mold: Aitor Furundarena)
- La alegría en San Fermin (Miguel Astrain; Mold: Karlos Sanchez).
- Sagarra jo! (Kalakan; Mold: Jabier Ituarte).
- Radetzky March (Johann Strauss; Mold: Ruper Lekue).



andoainDARRA
euskaraz



Ainara Mendiola eta Mikel Arregi aurkezpen ekitaldian. AIURRI

'Zutik', Rikardo Arregi gogoan hartuta egin duten laburmetraia

Andoaingo kazetari, idazle, pentsalari eta kultur eragileak 1965etik 1969ra bitarteko ibilbidea islatzen du

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal kultura eta kazetaritza garaikidean ezinbestekoa izan da Rikardo Arregiren ekarpena. Hura gogoan, Maluta films ekoiztetxeak laburmetraia egin du. Ainara Mendiola zuzendariak Rikardo Arregi pertsonan murgildu nahi izan zuela adierazi zuen: "Orain arte, hari buruzko lanetan, bera ezagutu zuten pertsonen eman zaie hitza, haien ikuspuntua jaso da. Gure helburua Arregiren pertsonalitatean barrurago sartzea izan da. Bi alderdi hartu ditugu kontuan batik bat: batetik, bere artikulua eta idazlanak, eta bestetik, bere etxekoek nola ikusi zuten Rikardo".

Rikardoren etxeko batek hartu du protagonistaren rola. Mikel Arregi ilobak, zehazki, Mikel Arregi eta Begoña Ormazabalaren seme txikiak. Ez da antzerki-

gintzatik datorren pertsona, baina Maluta Filmsekoen proposamena iritsi zitzaionean baiezkoarekin erantzun zien. Osaba Rikardoren sinesmena nabarmendu zuen, astelehenean egin zuten aurkezpen ekitaldian: "Oso konbentzituta zegoen bere ideiekin, kultura eta politika mailan oso argi zeukan zer nahi zuen. Beti eduki zuen argi euskarak modernizatzeko beharra zeukala, baserrietik kalera jaitsi beharra zeukala, gainerakoan galbidean izango zela. Rikardo Arregi ondo ezagutzeko, kontuan hartu beharko genuke zein tesuinguruetan mugitu zen. Dena zegoen egiteko orduan, dena baitzegoen debekatuta, euskara barne".

"Zutik" laburmetraia Andoaingo eta Usurbilgo Udalen eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan du.



Imanol Ubeda, Don Inorrez. DONINORREZ

Don Inorrez taldea, ostiral honetan Basteron

21:30ean hasiko da kontzertua, Santa Zezilia zikloaren baitan, Basteroko ekitaldi aretoan

Erredakzioa ANDOAIN

Bide Ertzean taldeak atsedena di mugagabe bat hartu zuen 2016ko abenduan. Ordutik hona, Imanol Ubeda taldeko kantaria 'Don Inorrez' ezizenarekin egitasmo berria gauzatzen ari da. Berriki, 'Dardara hura' lan berria aurkeztu du. Basteron eskainiko duen kontzertuan alboan izango du Andoaingen bizi den Karlos Aranzegi baterijolea. Baita musikaren munduan eskarmentu handia duten Borja Caballero gitarrajolea eta Fernando Neira baxujotzailea. Sarrrerak internet bidez eta egunean bertan eros daitezke, leihatilan.



Gozategi taldea zuzenean arituko da, 22:30ean hasiko den emanaldian. GAIZKAPENAFIEL

Gozategi eta DJ Bull, larunbatean Gaztetxean

Andoaingo Gaztetxean urteurreneko ospakizun handia egingo dute, eguerdian hasi eta goizaldera amaituko dena

Erredakzioa ANDOAIN

Azaroa kultur ekitaldiz beteriko hilabetea izaten da. Urteak dira Andoaingo Gaztetxeak urteurrenaren harira ospakizun sorta antolatzen dabilela. Urteurrena borobiltzeko, larunbat hone-

tarako egun osoko ospakizuna iragarri dute. Bazkaria, kalejira eta gauean festa kutsuko kontzertua. Eskarmentu handiko bi musika proposamen iragarri dituzte: Gozategi taldea eta DJ Bull disko jartzailea.



DJ Bull disko jartzaileak kontzertuaren ostekoa girotuko du. BASQUESONDECKS





IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Gorputzaren diktadura

Astehenerako zereginen eskeman jarritakoa, pasa den astean: eguerdian Axier Martinezen elkarrizketa egin eta pikatu. Txuriyarena moldatu. Bat bete zen, bestea ezin. Nik baino pena handiagoa edukiko du Martinez gazteak. Hilabeteak Donostiako maratokia prestatzen, eta maratoiaren egunean gorputzak, sabelak, bale esan eta erretiratu egin behar. Bi aste atzera hitz egiten egon ginen etxe atarian. “Hi, bi ordu eta erdiren bueltan ibiltzeko asmoa duk ezta? nola egingo diagu?”. Berak, zuhur: “Egon hadi, gero igual ez diat denbora onik egingo, edo proba bukatu ez”. Eta asmatu, zoritxarrez.

Gorputzak agintzen du. Eta kirioek. Eta tenpleak. Baina badira kontrolaezinak diren faktoreak. Nori ez zaio pasa? Izan kirol proba batean, oposaketa edo azterketa batean, den-dena azken detaillerraino prestatu, eta azken unean dena gaizki ateratu? Ba horixe. Maratokia ikustera joan nintzen igande goizean, Igara auzora, Gipuzkoako Ogasunak egoitza duen gunera. Bi aldiz pasatzen ziren bertatik korrikalariak, 16 eta 34 kilometroetan. Biak ikusi nahi, baina goizeko 09:00tan euri tantak leihuan kolpatzen, mantak itsatsita eta alferkeria galanta.

Whatsapp taldean informazioa botatzen hasi ziren kale bazterretan zeuden informatzaile finak. Jaiki naiz, eta Donostiara, bizi-bizi. Maratokia lau ordutik gora egingo duten korrikalariak ikusi ditut. Zenbaitzuk

GORPUTZAK AGINTZEN DU. BADIRA KONTROLAEZINAK DIREN FAKTOREAK. NORI EZ ZAI O PASA?

umoretsu, beste asko ezinean, dagoeneko. 16 kilometroko kartelaren ondoan! Pentsa zenbat geratzen zaien, ze gurutze bide duten beste 26 kilometro luze egiteko.

“Ederra zeukatek!”, pentsatu dut niretzat, ez urrun, bost bat urte atzera, ni neu ere antzera ibili nintzela ahaztuz, Behobia-Donostia lasterketan. Meritua bai, latza, maratoki bakarria osatzea lortzen dutenek. Meritu ikaragarria!

Axier Martinezek lasterketa utzi zuen tripetako ezinak jota. Ura edan, eta ez zion hartzen, gorputzak, eta proba uzteko beharrean aurkitu zen. Gaixotu egin zen, unerik txarrean. Kilometroa 3.45ko erritmoan ehunka serie egin eta gero, euri, hotz, edo hego haizea egin, bere entrenatzailearen aginduak fin-fin jarraituz. Baina atzo gorputzak, muga-mugan aspaldi, bale esan zion. Gorputzak bale esaten duenean ez baitago zereginik. Edo geratzen zara, edo gerarazten zaitu.

Korrikalari popularren patua ote? Sufritzea, egun erabakigarrian kale egin daitekeela jakitun? Ba bai. Eta eskerrak hala gertatzen den. Gorputzak bere kabuz erabakiak hartuko ez balitu robotak izango ginatekeelako. Eta robotek, momentuz, ez dituzte maratokiak korritzen. Hori ere iritsiko da, eta ez urrun, zoritxarrez. Ordura arte, animo besarkadarik handiena kirolari popular guztiei. Maratokia bi ordu eta erdian edo sei orduan egin, niretzat denak heroiak dira.

MARATOKIA BI ORDU ETA ERDIAN, EDO SEI ORDUAN EGIN, NIRETZAT DENAK HEROIAK DIRA



POSTONTZIA

JOXEAN BARANDIARAN, ANA CARRERE ETA ANDONI ALVAREZ (EH BILDU) ANDOAIN

Andoaingo Saihesbidea

N-I errepidea da, segur aski, Andoaingo azpiegiturarik deserosoena eta kutsagarriena: zarata, CO2 isurketak, auto-pilaketak herri erdigunean... eta arazo hau areagotu egin zen A-15 errepidearen eraikuntzarekin. Eraiki zenean errepidetako diputatu zen Eneko Goiak onartu zuenez, amaitu gabeko azpiegitura zen, baina ezinhobeia izango zen Andoaingo saihesbidea eraikitzen zutenean. Baina... zer da Andoaingo saihesbidea?

Andoaingo saihesbidea duela 20 urte baino gehiagotik eskatzen den proiektua da. Proiektu honen helburu nagusia da N-1 errepidea Oria ibaiaren beste aldera pasatzea, eta Belkoain zeharkatu berriz ere Sorabilla inguruan N-1 errepideari lotzeko. Modu honetan, Alejandro Calonge auzoa herrira integratuko litzateke eta lurrak libratuko lirateke hiri-garapenerako. Horien artean, esaterako, Allurralde kirol-gunearen handitzea.

Proiektuak 125 milioi euroko kostua zuen. Krisiak, ordea, ondorioak ekarri zituen Aldundiaren aurrekontuetan eta proiektua ez zen gauzatu. Baina A-15 errepidearen eraginak nozitzen hasi ziren herrian, lehen auto-ilarak sortuz. Bide batez, esan beharra dago guztiz aurreikusgarriak zirela

auto-pilaketa horiek, errei bakarrean amaitzen baita A-15 errepidea. Horrek guztiak erantzule argiak ditu: obra gauzatu zutenak eta inperfektua zela onartu zutenak.

2017ko urriaren 26an EHBilduk aurkeztutako mozioa onartu zuen Udalak; zonalde kaltetuenetan panel akustikoak ezartzea exijitzen zioten Aldundiari. EAJk kontrako botoa eman zuen. Zorionez, datozen bost urteetarako Aldundiak onartu zuen Ekintza Planean jasota dator eskaera hau, eta Andoain panelak ezartzea aurreikusia dago.

2018ko azaroaren 29an Errepideetako III. Planari alegazioa jartzeko proposamena onartu zen aho batez; besteen artean, saihesbideko obra gauzatu dezala galdegiten zaio Aldundiari.

Proiektu hura ez dutela bideragarri ikusten erantzuten dute lau hilabete beranduago, baina merkeago bat egiteko konpromezua hartzen dutela, Bazkardoko lotunea hobetu asmoz.

Proposamena jaso eta hamar egun beranduago, Andoaingo PNVk dio auto-ilararen arazoa konpontzeko proiektu bat duela, 25 milioiko kostua duena eta Aldundiaren oniritzia duena. Lau hilabete lehenago

saihesbidea egitea defendatu zuten, eta bat-batean, beste proiektu bat dutela esaten dute. Hitz egin dezagun argi: PNVk ez du proiekturik, Aldundia da horren inguruan lanean ari dena. Ez Batzar Nagusietako oposizioak, ez-eta Udalekoak ere, ez dute proiektu horren berri, eta EAJk bere hautes-programako izarretako bat bezala aurkezten du; gainera, diote, Udalak ez duela sosik jarri beharko, horixe bakarrik behar genuen!

Aurtengo maiatzeko hauteskundeak igarota, EHBilduk behin eta berriz eskatu zion EAJri proiektua aurkezteko. Ixiltasuna da nagusi. Ez dago erantzunik.

Urriaren, Aintzaine Oiarbide diputatuak obra gauzatu egingo dutela iragarri du. Lehentasuneko dela auto-ilarekin amaitzea. Andoaingo EAJk erabakia txalotu egiten du, eta EHBilduren aurka jotzen du ezer ez egitea leporatuz. Baina, bien bitartean, EAJk ez du proiekturik aurkeztu, inoiz eduki ez duelako.

EAJren funtzionamenduaren adibide bat da hau: arazoa sortu eta partxea edo adabakia saltzen digute ondoren, soluzioa izango balitz bezala. Baina Andoainek, bien bitartean, trafikoa, zarata eta kutsadura besterik ez ditu izango.



Aiurri eskuragarri: Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.es
www.aiurri.es

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.es
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.es
Banatazaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.es | www.aiurri.es
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:

ALIAITUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

ZIURTAGIRIA:

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.



Emakumeenganako irainak eta mezu zatarrak biltzen zituzten orritxoak sutara bota zituzten. AIURRI

Biktimen omenez

Indarkeria matxistaren biktimak gogoan hartu zituzten azaroaren 25ean Goikoplazan antolatu zuten ekitaldian. Adierazpen instituzionala irakurtzeaz gain, mezu iraingarriekin amaitzeko ekintza burutu zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Udala osatzen duten alderdi politiko guztiek adierazpen bateratua sinatu zuten, eta guztien izenean Berdintasun saileko zinegotzi Petri Romerok adie-

razpenaren edukia irakurri zuen. Kandelak banatu zituzten bertaratu zirenen artean, eta plaza erdian jarritako suan emakumeen aurkako mezu iraingarriak erretzera bota zituzten.

Ekintza hori burutzen ari ziren bitartean, bozgorailutik La Salle Berrozpe ikastetxeko eta Aita Larramendi Ikastolako ikasleek grabatutako mezu matxistak entzun ziren.



AIURRI

Dozenaka lagun elkartu ziren Urnietan

Ehun lagun inguru elkartu ziren azaroaren 25ean, San Juan plazan, Urnietako Udalak deitu zuen elkarretaratzean. Isiltasunean elkartu ziren, eta

ekitaldia txalo artean amaitu zen. Udal ordezkari zaba hurbildu zen, eta baita Asier Nieblaren senideak eta lagunak ere.

Adierazpen instituzionala

[Xehetasunak xehetasun, Andoainen eta Urnietan eduki beretsuko adierazpen instituzionalak adostu dituzte. Honakoa, Andoaingoa da]

Azaroaren 25a (Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna) dela-eta, indarkeria mota honen egitura-izaera nabarmetzen dugu, eta gure konpromisoa agertu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeko. Era berean, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorrira, berresten dugu beharrezkoa dela ekintzak proposatzea esku-hartzearen alor guztietan: prebentzioa, hautematea, arreta, babesia, koordinazioa eta justizia, arreta berezia jarrita biktimei eta bizirik atera diren pertsonen erreparazioa ematean.

Tokiko gobernuek biktimei arreta eskaintzeko alorrean aitortuta dugun erantzukizuna eta eskumena gure gain hartzen dugu, gure herri eta hirietan indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik hurbilen gauden erakundeak garelako. Politikarien eta teknikarien bultzada koordinatuarekin, tokiko erakundeen esku-hartzea funtsezkoa da erreparazio prozesuan, komunitateko bizitza berriro osatzen laguntzeko eta biktimei erreparazio publiko eta soziala emateko, indarkeria matxistaren biktimen eta bertatik bizirik atera diren pertsonen inguru hurbilenean.

Azpiratu behar da Andoaingo Udalean indarkeria matxistaren biktimei eta bizirik atera direnei arreta emateko erakunde arteko jarduketa- eta koordinazio-protokolo bat dugula, eta protokolo horrek barne hartzen duela biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko udal-politika bat. Horri esker, indarkeria matxista benetan interes publikoko gai bihurtu daiteke, eta beharrezkoa da esku-hartze berezia egitea biktimentzako eta bizirik atera direnentzako erreparazioa bermatzeko.

Ido horretan, Berdintasuneko (Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea) berdintasun-teknikarien lana funtsezkoa eta baliotsua da udalei orientazioa eta jarduteko irizpide komunak emateko.

Beraz, konpromiso politikoak betetzeko jardun nahi dugu, eta horrekin batera, indarkeria matxista mota guztiak desagerrarazteko:

- Eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jarrita, euren beharrian eta eskaerak entzunez eta arreta emanez.
- Langile espezializatu eta kulfikatuak edukita, erreparazioaren ikusmoldeak, ikuspegi feministarekin.
- Berdintasun saila, sail berria izanik, bere egonkortasunerako beharrezkoak dituen lan baliabide, pertsonal eta ekonomikoak bideratzea.
- Indarkeria matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta Andoainen urtero antolatzen diren jardueren programazioa sustatzen jarraitu.
- Andoain indarkeria matxistaren aurkako udalerrri gisa bereiziz, hainbat seinaleren bidez.
- Erreparazioarako eta ahalduzko esku-hartze prozesu guztietan, kudeaketa eta azkartasuna bermatzeko lan eginez.
- Tartean sartutako erakunde guztiekin koordinatuz, arreta eta erreparazioarako baliabideak egituratzeko, indarkeria matxistaren biktimen egoera erabat lehengoratuko dela eta urrututako eskubideak berrezarriko direla bermatzeko.
- Talde feministekin eta tokiko emakume-elkarteekin lankidetzan aritzea, berdintasunaren inguruko jarduerak eta programak diseinatzeko, eta indarkeria matxistaren biktimei eta bizirik iraun dutenei errekonozimendua eta erreparazioa emateko jarduerak diseinatzeko. Horrez gain, hausnarketa-gune berriak sortzeko urratsak ematea, emakumeen partaidetza soziopolitikorako.
- Eta, era berean, Andoaingo herritar guztiei dei egiten diegu azaroaren 25a dela eta egiten diren salaketa- eta aldarrikapen-ekitaldietan aktiboki parte har dezaten, bereziki indarkeria matxistaren biktimei omenaldia egiteko Andoaingo Udalak hainbat emakume-elkarterekin eta mugimendu feministarekin batera azaroaren 25ean Goikoplazan egingo den ekitaldian.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Amaiak Bat-Euskalduna **0-0**

SAILKAPENA

1 Eibar Urko **25 puntu**
15 Euskalduna **10 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

16:30 Euskalduna-Zarautz / Ig, 1

NESKAK, 0. ERREGIONALA

Urnieta-Ostadar **2-0**

ERREGIONAL PREFERENTE

Oiartzun-Urnieta **0-0**

ASTEBURUKO PARTIDA

20:00 Urnieta - Gure Txokoa / Ost, 29

ERREGIONAL 1. MAILA

Lazkao-Euskalduna **2-2**

SAILKAPENA

1 Anaitasuna **19 puntu**
6 Euskalduna **14 puntu**

PREFERENTE NESKAK

SAILKAPENA

1 Euskalduna **22 puntu**
2 Añorga **22 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Euskalduna-Irauli Bosteko / Lar, 30

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

Euskalduna-Hernani **3-3**

SAILKAPENA

1 Ekintza **24 puntu**
2 Euskalduna **24 puntu**

JUBENILEN LEHEN MAILA

Hernani-Urnieta **1-6**
Ostadar-Euskalduna **2-1**

SAILKAPENA

3 Urnieta **20 puntu**
6 Euskalduna **11 puntu**

KADETE, 7. MULTZOA

Euskalduna-Lengokoak **4-3**
Urnieta-Billabona **6-0**

SAILKAPENA

1 Euskalduna **30 puntu**
4 Urnieta **11 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

12:15 Euskalduna-Luberri / Lar, 30

17:30 Urnieta-Herrera / Lar, 30

KADETE, 8. MULTZOA

Amara Berri-Urnieta **0-6**
Santo Tomas Lizeoa-Euskalduna **4-0**

KADETE NESKAK

Euskalduna-Urnieta **0-0**

ASTEBURUKO PARTIDA

13:30 Urnieta-Luberri / Lar, 30

ESKUBALOIA

EUSKADI, SENIOR MUTILAK

Muskiz-Urnieta **36-21**

SAILKAPENA

1 Basauri **19 puntu**
11 Urnieta **6 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

18:30 Urnieta-Deusto Loiola / Lar, 30

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK

Leizaran-Hondarribia **28-18**

SAILKAPENA

1 Saieko **14 puntu**
5 Leizaran **10 puntu**

GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK

Leizaran-Ereintza **25-24**
Egia-Urnieta **28-21**

SAILKAPENA

1 Egia **2 puntu**
3 Leizaran **2 puntu**

GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK

Hernani-Urnieta **14-34**
Leizaran-Aiala **29-19**

ASTEBURUKO PARTIDA

10:30 Urnieta-Ereintza / Ig, 1

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK

Hernani-Leizaran Horia **34-24**
Urnieta-Leizaran **28-33**

ASTEBURUKO PARTIDA

12:45 Leizaran Horia-Donibane / Lar, 30

16:00 Leizaran-Eibar / Lar, 30

GIPUZKOA, KADETE NESKAK

Leizaran Horia-Ereintza **22-10**
Urnieta I.M-Astigarraga **26-2**
Leizaran-Aiala **26-11**
Egia-Urnieta **26-21**

ARETO FUTBOLA

GIPUZKOAKO KOPA

Mondrate-Euskalduna **5-4**

LIGA, 1. JARDUNALDIA

Euskalduna-Gaintxu **4-2**

SAILKAPENA

1 Oiartzun **20 puntu**
5 Euskalduna **14 puntu**

SASKIBALOIA

SENIOR GIZONEZKOAK 3. MAILA

Astigarraga-Zurrut **67-54**

SAILKAPENA

1 Take Coach **9 puntu**
6 Zurrut S.K. **6 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

19:15 Zurrut-Eibar / Lar, 30

JUNIOR GIZONEZKOAK

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00 Ganbara-Oiarso / Lar, 30

KADETE GIZONEZKOAK

Ganbara-Aldapeta **39-54**

SAILKAPENA

1 Antigua Luberri A **10 puntu**
10 Ganbara **5 puntu**

Seigarren garaipena jarraian

ESKUBALOIA Senior mailako neskek garaitezina dira, denboraldiaren hasiera honetan. Seitik sei garaipen lortu dituzte. Oraingoan Pulporen etxean (17-22). Egiarekin berdinduta, hirugarren sailkatua 6 puntura dago.



UKE

Denboraldi bikaina

ESKUBALOIA Kadete nesken mailako Leizaran Horia denboraldi bikaina egiten ari da, Gipuzkoako ligako lehen sei jardunaldietan partida guztiak irabazi baititu. Fasea bukatzeko partida bakarra falta denean, onenek jokatuko duten hurrengo faserako sailkatuta dago.

Finala jokatuko du

ESKUPILOTA Amaia Aldaik eta Nora Mendizabal andoaindarrak Emakumezkoen Bizkaia Torneoko finala jokatuko dute, Agirre-Romero bikotearen aurka. Larunbat honetan izango da. Finalurrekoan bergara-Ruizen aurka garaipena lortu zuten, partida gogor eta parekatuaren ostean (22-19).



AIURRI

Larunbatean Allurralden

SASKIBALOIA Gipuzkoako 3. mailan abiarazi du denboraldia sortu berri den Zurrut taldeak. Joan zen asteburuan Astigarragan partida galdu eta gero, larunbat honetan Eibar aldeko aurkariak jasoko dituzte etxean. Ganbara taldea gazte mailako kideez osaturik dagoen bitartean, Zurrut taldea helduek osatzen dute.



ZURRUT

ORMENDI
KIROLAKBLACK
FRIDAY

Kale Berrig, 2. ANDOAIN
943 591 806





Jon Urdangarin Euskalduna taldeko entrenatzailea Ubitarte futbol zelaietan. AIURRI

"Kanpusak balio inklusiboa izango du"

JON URDANGARIN EUSKALDUNA FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

FUTBOLA "Eguberri Gol!" kanpuseko antolatzaileetako bat da. Gabonetako oporraldietan kirol arloan dagoen hutsunea betetzeko asmoz antolatu dute

Mikel Arberas ANDOAIN

Zenbat urte daramazu haurrak eta gazteak entrenatzen. Eta zergatik? Bederatzi urte daramatzat, oker ez banago. Gaztetatik gogoko izan dut entrenatzailearen papera, gustuko duzun hori beste belaunaldi bati helaraztea garrantzitsua da.

Zein balio irakasten saiatzen zara?

Nire ustez kirolak bere horretan ez ditu balio onak edo negatiboak erakusten; baina bata edo bestea erakutsi daiteke kirolarekin egindako lanketaren arabera. Futboleant berdina gertatzen da. Lanketa ona eginez gero balio garrantzitsuak irakatsi ditzake-

zu: talde lana, elkarlana, bestekiko errespetua, ahalegina, norbanakoaren ezagutza, autonomia, eta abar. Modu negatiboan ere enfokatu daiteke eta, esaterako, gehiegizko lehiakortasuna, egoismoa edota egoera gatazkatsuak sor ditzake. Laburbilduz, futboleant egiten den lanaren

arabera, balio onuragarriak edo kaltegarriak erakutsi ditzakezu. **Zertan oinarritzen da sortu berri duzuen "Eguberri Gol!" gabonetako kanpusa?**

Entrenatzaileok beharra ikusten genuen gabonetako oporraldietan jokalariei euren jardunean jarraikortasuna ematea. Gainera, herri mailan Gazte Astea dagoen arren, hortik haratago hutsune bat sumatzen genuen. Horrez gain, futbola zenbait arlo lantzeko erreminta edo bitartekoa dela uste dugu; adibidez, taldekideen arteko harremana hobetzeko, garapen motorrean laguntzeko edota balio egokiak helarazteko. Azken finean, horrelako zelaia eta azpiegiturak edukita aukera polita galtzen ari ginela iruditzen zitzaigun. **Parte hartzeko ezinbestekoa da futboleant jokatzen jakitea?**

Ez. Futbolak lehen aipatu bezala, egindako lanketaren arabera emaitza batzuk jasoko ditugu. Guk balore inklusiboak helaraziko dituen lanketa bat egin nahi dugu, eta, beraz, bere baitan hartzen ditu futboleant jokatzen dakitenak, ez dakitenak edota ezaugarri ezberdinak izan ditzaketen haurrak; guztiak dute eskubidea kirol honetan parte hartzeko eta futbol has-tapeneko lehen ezagutza horiek jasotzeko.

Balio eta lanketa hitza askotan aipatu duzu...

Garrantzitsua iruditzen zaigu futbol entrenamenduak gazteen ezaugarrietara moldatzea, hau da, ezin da kadete edo jubenilen entrenamendua denbora eta espazioan haurrentzat moldatu, euren ezaugarriak guztiz ezberdinak baitira. Ariketen logikak guztiz ezberdina izan behar du. Umeez, batez ere, jokoaren bitartez ikasten baitute; orduan, garrantzitsua da jokoaren presentzia egotea Eguberri Gol kanpusean.

Benjamin eta alebin mailakoek izena eman dezakete, eta maila baterako edo besterako kanpusa ezberdina izango da; bakoitzaren ezaugarriak eta gaitasunak adin tarte bakoitzean aldatu egiten direlako.

Jada egonaldi eta kanpus askotan euskararen gaineko lanketa egiten hasi dira, zer diozu?

Ezinbestekoa da, bai. Euskarari buruzko lanketa oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Esan beharra daukat, euskararentzat oso arrotza izan dela orain arte

Gabonetako lehen kanpusa

Eguberri Gol!

Abenduak 26, 27, 28.

Urtarrilak 2,3,4.

Adina:

2008-2011 urteetan jaiotzen direnentzat.

Ordutegia:

09:30-13:00.

Haurrak 09:00tan utzi ahal izango dira.

Izen ematea Ubitarten:

17:00-20:00.

Astelehenetik ostiralera.

Prezioa:

Txanda bakarra: 50 euro.

Bi txanda: 90 euro.

Harremanetarako:

euskalduna1923

@gmail.com.

futbola eta euskaldun askoren hizkuntza eskubideak ere urratuak izan direla iruditzen zait; izan ere, euskara ama hizkuntzatzat dutenek ezin izan dute euren jarduna aurrera eraman. Hortaz, eskubide hori emateko aukera bat da, kirol praktikan euskarak presentzia izateko, eta, azkenean, umeentzat horren dibertigarria den testuinguru batean euskarari bultzada bat emateko.

Esandako guztiari, bizi ohitura osasuntsuak sustatzen saiatuko garela gehitu nahi diot. Mundu mailan sedentarismo arazo larria dago, eta egoera horri aurre egiteko jarduerak fisikoko programak martxan jarri behar dira. Gure kasuan, jarduerak fisiko hori haurrei zuzendutakoa izango da eta, beraz, dibertigarriak izan behar dira nolabaiteko adierentzia bat sortzeko eta etorkizunean ere bizi estilo aktiboa edukitzeko.

Maiz ikusten dira haur eta gazteen futbol partidatan liskarrak. Landu beharreko gaia dela uste duzu?

Joko garbiaren inguruan lanketa egin beharra dago. Guztiok ikusi ditugu harrobiko talde batzuetan ematen diren jarrerak tamalgarriak harmailetan, zelaian, epaileen aurka edota jokalarien artean. Horrelako jarrerekin amaitu behar da, eta guztiok bete beharreko helburua da; ez klubarentzat soilik, baita futbol munduan gabiltzanontzat ere.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 28

ANDOAIN Trukeguna

Ekogunearekin eta beste hainbat udalerriekin elkarlanean, jostailuak trukatzeko aukera dago.

Allurralde, Arrate.

ANDOAIN Irakurketa

"Rikardo Arregi irakurtzen, 50 urte ondoren", jendaurreko ekitaldian Andoaingo kazetari eta euskaltzalearen hainbat lan irakurriko dira.

10:00-18:00, Bastero plaza.

ANDOAIN Sari banaketa

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak, sari banaketa ekitaldia.

19:00, Bastero Kulturunea.

URNIETA Argazki-erakusketa

"Soinuen Begiradak".

Abenduaren 2ra arte. Lekaio.

"Sarobek 25 urte". Atrezzoak, jantziak, kartelak, ikus-entzunezkoak...

erakusketa dotorea prestatu dute.

Abenduaren 15era arte. Sarobe.

ANDOAIN Erakusketa

"Esencia eta Existence".

Abenduaren 20ra arte. Bastero.

OSTIRALA 29

URNIETA Aisialdia

Beldurrezko etxea, 11-16 urte arteko gazteei luzatutako eskaintza.

18:00-20:30, Lekaio.

ANDOAIN Erakusketa

Memoria eraikiz ekimena. Goizez ikastetxeentzat, arratsaldez hiritarrentzat.

18:00, 19:00, 20:00, Goikoplaza.

ANDOAIN Kontzertua

"Don Inorrez" Imanol Ubedaren musika egitasmoa.

21:30, Bastero.

URNIETA Kontzertua

Makala & Jimmy Bidaurreta eta Mad Muasel By Big Sound Boy taldeak. Doinu dantzagarriak bi musika proposamenetan.

Sarobeko urteurrenako emanaldia da.

22:00, Sarobe. 5 euro.



DJ Makala. DONOSTIAKULTURA

URNIETA Musika estilo dantzagarriak Sarobeko urteurrenean

Makala & Jimmy Bidaurreta artistek latin, jazz, soul edota funk estiloekin osaturiko proposamen dantzagarria eskainiko dute. Taulagainera igoko den beste taldea Mad Muasel By Big Sound Boy izenekoa da. Rototom edo Viña Rock bezalako jaialdi ospetsuetan izateaz gain, The Wailers, Sizzla, Alborosie, Daddy Freddy, Morodo, el guincho eta Mala Rodriguez bezalako artistekin batera jardun. Sarobeko urteurrenako emanaldia da.

22:00, Sarobe. 5 euro. Azaroak 29, ostirala.

LARUNBATA 30

URNIETA Ikuskizuna

"Soinuen Begiradak", dantza eta musika emanaldiaren hiru saio.

16:00, 18:00, 19:30, Sarobe.

ANDOAIN Bertso afaria

Aitor Mendiluze eta Sebastian Lizaso kantari arituko dira, Euskararen Nazioarteko egunaren harira antolatutako saioan.

21:00, Peña Santa Krutz elkarte.

ANDOAIN Kontzertua

Gozategi eta DJ Bull, Gaztetxearen urteurrenako kontzertua.

22:30, Gaztetxea.

IGANDEA 1

ANDOAIN Kontzertua

Olagain Banda, gonbidatuekin batera.

12:00, Bastero.

URNIETA Antzerkia

"Ghero" antzezlan, euskaraz. Sarreraren zozketa azaroaren 24ra arte zabalik.

19:00, Sarobe. 5 euro.

ASTELEHENA 2

ANDOAIN Kanpaina

'Andoaingo Bonoa', Salkineko dendetan. 40 euro ordaindu, 50 gastatu. Abenduaren 2tik 10era.

Ondarreta kalea, 6.

ANDOAIN Ate irekiera

Galardi haurreskolaren ate irekiera. Izena emateko azken eguna abenduaren 7a izango da.

16:30, ate irekiera. Galardi.

ASTEAZKENA 4

ANDOAIN Hitzaldia

"Finantzaz Haratago" sarearen aurkezpena, Fiare Andoainen eskutik.

18:30, Bastero.


OSTEGUNA 5

DURANGO Azoka

Disko eta liburu azokaren edizio berria, euskal kulturgintzarentzat erreferentziatzeko gunea.

Abenduaren 5etik 8ra. Landako.

ZINEMA

**ANDOAIN****Shaun arditxoa**

Lar, 30: 17:00.

Ig, 1: 17:00.

Si yo fuera rico

Lar, 30: 19:30, 22:00.

Ig, 1: 17:00, 19:30.

Astl, 2: 19:30, 22:00.

Familia Adams

Aben. 6-8, 17:00.

Legado en los huesos

Aben. 6, 7, 8, 9. Estreinaldia.



SINOPSIS

**Si yo fuera rico**

Zuzendaria: Alvaro Fernández Armero. **Aktoreak:** Alex Garcia, Alexandra Jimenez, Adrian Lastra, Paula Echevarria, Antonio Resines eta abar luzea. **Herrialdea:** Espainia (2019). **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 98 min.

Aberats berriaren ibilerak

Abendua loteriaren hilabetea da, eta hainbeste hitz egiten den gaiari buruzko filma ekoiztu dute Telecinco Cinema eta Movistar ekoiztetxeek. Zinema aretoetako txarteldegia loditzeko aitzakia perfektua. Santi nola edo hala

aurrera ateratzen ari den gaztea da, eta goizetik gauera aberats bihurtzen da. Oso aberatsa, zehazki esanda. Arazo batekin egiten du topo, lagunei ez esatea erabakitzen duela. Eta are gutxiago bere bikotekideari.

Beldurrarekin gozatzeko tartea

Urnietako Gaztelekuak Beldurrezko etxearen edizio berria antolatu du. Ostiral honetan, arratsaldeko 18:00etik 20:30era, 11-16 urteko gazteek beldurrarekin gozatzeko tartea izango dute Lekaion. Udalak adierazi duenez, ekimenak "herriko gazteen artean erantzun bikaina jaso ohi du". Hori bai, parte hartzeko izena eman beharra dago. Izen ematea egunean bertan zabalduko dute, 17:30ean hasita.



Ostiral honetan beldurrarekin hitzordua dute Urnietako Lekaion.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Uxue Ibañez
Donoso
24 urte bete ditu azaroan. Muxu handi bat, etxeokak.



ANDOAIN
June
Abenduaren 6an hiru urte beteko ditu. Segi beti bezain irrifartsu. Maite zaitugu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

diseinua@aiurri.eus

Idatzi: izen-abizenak, herria, eguna. **Arantzibia 4-5, behea** Etor zaitez bulegora, Andoainera. **Whatsapp bidez:** 619 163 537.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 30 eta igandea 1
MONFORT: Aita Larramendi, 26.
943 300 913 Andoain.

URNIETA

Larunbata 30 eta igandea 1
GOMEZ BRAVO: Nagusia, 14.
943 554 892 Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.

Euskararen biziraupena ardatz duen antzezlana

"Ghero: Azken euskalduna" antzezlana Euskaltzaindia eta Tartean teatroren arteko elkarlanetik sortu da, Akademiaren mendeurrenaren harira. Igande honetan Saroben ikusteko aukera izango da, iluntzeko 19:00tan hasita

Erredakzioa URNIETA

Iazko udazkenean egin zuten estreinaldia, eta geroztik Euskal Herrian barrena aurkezten ari-tu dira. Igande honetan Tartean konpainiaren Urnietara iritsiko da. Antzezlana euskararen nazioarteko egunaren atarian programatu dute, Saroberen hogeitabosgarren urteurrenarekin bat eginez.

Sinopsian honakoa irakur daiteke: "3000 urtea. Euskara desagertzeko zorian dago. Azken euskaldunak izkin egin nahi dio halabeharrari. Benetako misterioa ez da gure hizkuntzaren jatorria, ez bada bere biziraupen harrigarria. 3000 urtean euskara egongo al da?".

Ghero, euskararen biziraupen harrigarriari buruzko antzezlana modura definitu dute. Bederatzi pasarte ezberdinez osatua, antzezlana emozionala, originala, dibertigarria, harrigarria eta estetikoki ausarta da.

Patxo Telleriak idatzia, Jokin Oregik beregain hartu du zuzendaritza lana. Oholtza gainean Mikel Martinez, Patxo Telleria, Olatz Ganboa, Iñaki Maruri eta Ane Pikaza aktore ezagunak arituko dira. Eskenografiaren diseinua Ana Garayk egin du eta Musikaren egilea Iñaki Salvador da.



Martinez, Ganboa, Maruri eta Telleria, Ghero antzezlanean eszena batean. TARTEAN

Telleria antzezlana idatzi duen aktoreak bere blogean lagun batek bidalitako hausnarketa argitaratu zuen, Bilboko Arriagan emanaldia eskaini ostean. Imanol Alvarez da egilea, eta hausnarketaren amaierak honela dio: "Ikasleek ez ezik, euskaldun guztiek ikusi beharko lukete Ghero antzezlana, gure

historiaz zertxobait jakiteko beharbada, baina batez ere euskara gordetzearen eta gehienbat erabiltzearen garrantziaz jabe daitezten. Egia esan, desiragarria izango litzateke erdaldunek ere ikustea, baina zaila dugu, operan bezala gaintituluak erabiltzen ez badira behintzat. Izan ere, lan hau itzulezina da-eta".

**EUSKARAREN
BIZIRAUPEN
HARRIGARRIARI
BURUZKO
ANTZEZLANA DA**

**ANTZEZLANA
EUSKARAREN
NAZIOARTEKO
EGUNAREN ATARIAN
PROGRAMATU DUTE**



Fiare Andoain elkarteko kideak. FIARE

"Finantza Etikoak garapen positiboa sustatzeko" hitzaldia

Fiare Andoaingo taldeak antolatuta, datorren abenduaren 4an Basteron izango da

Aiurri komunitatea

Fiare elkartea / ANDOAIN

"Finantzaz Haratago" finantza etikoen alorreko erakundearen sarea da, ondorengoekin partaidetzarekin: Euskadiko Finantza Etikoen Elkartea, Koop57, Mugarik gabeko ekonomilariak, OikoCredit eta ElkarCredit.


Finantzaz Haratago plataformaren helburua da Euskadin finantza etiko eta alternatiboetako hezkuntza sustatu eta zabaltzea, ikasleek eta gizarteak jasotako hezkuntza finantzarioari buruzko hausnarketa kritiko eta konstruktiboa elkarlanean sustatzeko asmoz. Gaur egungo hezkuntzan, sistema finantzarioari eta bere tresnei buruz hitz egiten denean, ohiko bankuen agerpena oso nabaria eta aktiboa dela uste dugu. Hori dela eta, errazagoa da haien mezua berregitea eta sistema kapitalista hegemonikoa beti-

kotzea. Horregatik guztiagatik, beste era bateko materialak eskaini nahi ditugu, gaur egungo sistema ekonomikoari buruzko ikuspegi kritikoa, ekonomia eraldatzaileen aldeko apustua eta sozialagoa zein jasangarriagoa den munduranzko alternatiben adibidea. Hori guztia, gainera, partaidetzaz eta laktidetzapean jorratuko da, eragin politikoa edukitzeko eta gaur egungo hezkuntza-sistemari nahiz ustezko hobekuntzei buruz hausnartzeko.

Finantza Etiko eta Alternatiboaren inguruko informazio gehiago jasotzeko, eta proiektu honen barruan eskaintzen eta garatzen diren ekintzen informazioa izateko, ikasleagoari zein herritarrei zuzendutakoak, hitzaldian parte hartzera animatzen zaituztegu.

**Abenduak 4, asteazkena.
18:30. Bastero.**


ZKO



Etorkizuna orain



Gipuzkoa
etorkizuna da.
Iritsi den
etorkizuna.



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN